


**B**

BARREN

TOKIKOM

# Dentista solidarioak






**SAN ROKE KALEA, 20**  
**TEL.: 943 744 457**  
**ELGOIBAR**  
**[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**

**ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK**

**Beharapenak  
Furniture solutions  
etxeko armairuetan!**

**3 ate (190 zm x 240 zm)  
1.087€ Basic Modeloa**

**1.087€-tik aurrera!!  
(muntaia eta BEZ-a barne)**





Angel  
Bazterretxea

Seminarioan ikasten genbiltzanean, ikasturteko azken eguna iristen zenean, irakasle batek *finis venit venit finis* esaten zingun, eta poz-pozik geure herri eta etxera joaten ginen denok, uda pasatzera.

Gure eginkizun literario honi ere etorri zaio *finis*-a. Hau da, BARRENEN egin de-



Iñigo  
Lazkano

gun lan polit honek bukatu du bere ibilera. Beste batzuk jarraituko dute bide honetan. Niretzako oso lan polita izan da. Euskara erabili, euskaraz idatziz eta euskaraz pentsatuz. Euskara lantzeko eman didan aukera eskertu nahi diot BARRENI. Ez dakit zuk zer esango duzun, Iñigo. Gauza asko dira kezkatzen gaituztenak, eta gauza garrantzitsuak gainera. Euskarak ere, gure hizkuntzak, sortzen digu nahiko kezka. Baina BARREN bezalakoek, Euskal Herriko hainbat herritan argitaratzen diren beste hainbat bezalakoek, itxaropen ederra sortzen digute gure hizkuntzari dagokionean.

### “Euskara lantzeko eman didan aukera eskertu nahi diot BARRENI”

Gure hizkuntza bizirik dagoela, eguneroko gorabeheretan erabiltzen dugula eta hizkuntza jantzi bat dela erantzun diezaiokegu Adolfo Suarez; euskara hizkuntza landu bat dela eta ez dela ahozko erabilerara mugatzen. Euskaraz ere ikasi daitezkeela Batxilergoa eta beste karrera galant eta gaitzak. Aspaldikoa zen Aita Larramendi jesuita andoaindarra. Orain dela berrehun urte baino gehiago, Salamancako Unibertsitateko irakaslea izan zen, eta euskara beste hizkuntzak bezain “kultua” edo jantzia zela probatu nahi zien hango gainerako irakasleei. Orduko irakasle askok euskara baserrietan eta sukaldeetan erabiltzeko hizkuntza zela esaten zioten Larramendiri, eta berak liburu bat argitaratu zuen: *El imposible vencido*. Izan ere Larramendik Euskararen Gramatika bat sortu zuen, eta askori, euskara kalean, etxean eta baserrietan erabiltzeko zela esaten zutenei, erakutsi zien euskara beste edozein hizkuntza bezain “kultua” zela. Bueno, Iñigo, zuri ematen dizut txanda. Eta irakurleei, eskerrik asko, eta hurrengo bat arte. Ondo bizi.

Ailegau jako, bai, buekaeria gure BARRENEko kapituluari. Ez dakit lan polita egin degun edo ez; epai hori irakurlien esku lagatzen det. Seguraski klase guztietako iritzixak egongo dira. Badakitt batzuek gustora irakurtzen gaittuztela eta baita beste batzuk zain egoten dirala gure txandia aillegatzeko. Detaille txiki horiek asko pozten nabe eta nahikua satisfazio dira idaz-

ten segitzeko, baiña danak daka bere bukaeria eta uste det haize freskua sartzen lagatzeko momento apropos dala hau. Etorri daittezela beste pertsona batzuk, beste ideia eta idazteko era batzuekin. Ekarri daixela euren bizitzako hainbat gairi buruzko iritzi pertsonala eta busti daittezela iritxixa emateko orduan.

Ni neu ez naiz oso politikamente zuzena izan gure sekzio honetan. Pulpitu honetatik burura etorri jatazen ideia eta iritzi danak bota dittut, iñungo filtrorik aplikatu gabe. Ondorioz, ulertuko neuke baten bat guk amaittu izana zelebratzen ego-tia ere.

### “Lan haundixa egitten dau BARRENEK euskeria zabaltzeko”

Euskeriak kezkatzen zaittula diozu, Don Angel. Ba egixa esan, ni neu ez nau asko arduratzen. Oso baikorra naiz euskerian etorkizunaren inguruan. Arrasto onian sartuta daguala iruditzen jata. Lan haundixa egin da gauden egoeran egoteko eta hola segi biharko da, baiña seguru nago segiko dala. Jende oso arduratsua dago gai honen kargu eta euren konfiantza osua daukat. Horren adibide da BARRENA. Lan haundixa egitten deu gure inguruan euskeria zabaltzeko eta etorkizunian hedapen honek jarrai dezan erremintta oso baliogarrixa izango da. Segi holaxe, BARREN!



I. URTEURRENA

**PEDRO AGUIRREGOMEZCORTA IBARLUCEA**

*Aitzbizkar*

2012ko otsailaren 15ean hil zen, 81 urte zituela.

*“Nahiz eta urrutira joan beharra izan, gure bihotzetan egongo zara betirako”*



Zure familia

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Alez ale... Sahararaino

Alez ale elikagaiez bete ditugu otarrak. Alez ale sailkatu eta osatu ditugun kutxekin bete ditugu, bihar (otsailak 16), Bilboko udaletxetik Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetarantz karabanan irtengo diren kamioiak.

Beraz, aurten ere Eibar-Sahara Elkartek eskerrak eman nahi dizkie kate honen begi guztiei: lagundu duten herritarrei, supermerkatuei (Eroski eta Netto), farmaziei (Etxeberria, Yudego...) eta ikastetxeei (IMH, Arreiturre eta Meka).

Eibar-Sahara Elkartea

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



**Ume aulki bat bota dute trenbide ingurura:** "Herri-ritar batzuk ez dute ezer errespetatzen. Pista Beltz ingurutik Trenbide gainera ume aulki bat bota dute, eta hantxe zegoen astelehen goizean, erabat hondatuta. Zaindu dezagun gure ingurunea, mesedez".




**King-Kong zubiko eskailerak kendu beharko lirateke:** "King-Kong zubiak ez dut uste irisgarritasun irizpideak betetzen dituenik. Ume aulkiarekin ibiltzeko edota gurgildun aulkian joateko zailtasun handiak sortzen dira King-Kong zubian. Ez dira eskailera asko, baina oso deserosoak dira. Ez dut uste lan handia denik eskailera horiek kendu eta aldapa jartzea".



**Maalako errotondako semaforoak ez dabilta eta oinezkoek errepidea gurutzatzeko zailtasunak ditugu:** "Luizia dela-eta, Maalako bidegurutzeta errotonda bihurtu dute azken asteotan, eta horrek oinezkoentzako arazoak ekarri ditu. Zebrabidea egon arren, gidari askok ez dute errespetatzen eta ez dute autoa geratzen. Goizean, batez ere, jende guztia lanera joateko presaz ibiltzen denean, ia ezinezkoa izaten da errepidea gurutzatzea. Ezingo litzateke botoia sakatzeko aukera ematen duen semaforo bat jarri? Oinezkorik ez dagoenean bidea libre egongo litzateke, eta oinezkoak daudenean soilik jarriko litzateke gorri semaforoa".



**Urazandi auzoko eskaileretan barandaua hondatuta dago:** "Badira pare bat hilabete Urazandiko barandaua hondatuta dagoela eta uste dugu badela hori kopontzeko ordua. Herri Eskolara joaten diren umeak eskailera horietan ibiltzen dira gora eta behera, eta ez dugu uste barandau horrek segurtasun neurriak betetzen dituenik. Eskertuko genuke lehenbait lehen konpontzea".



**Sigmako aparkalekuan TAO-OTA sistema jartzeak ez dauka zentzurik:** "TAO-OTA sistemaren helburua herrigunean mugimendu gehiago egotea eta aparkatzeko lekuak gehitzea da, baina Sigmako kasuan ez da hori betetzen. Sigman jendeak denbora luze-rako aparkatzen zuen autoa, eta TAO-OTA sistema jarri dutenetik, aparkalekua hutsik egoten da. Herriarrek gero eta zailtasun gehiago dituzte aparkatzeko. San Roke eta Urazandi inguruetan aparkatzen dute orain herrigunean bizi edo lan egiten duten askok, eta ondorioz, auzoetan ere aparkatzeko arazoak areagotu egin dira. TAO-OTA sistemak ez du aparkaleku guztietarako baliu, eta Udalari eskatu nahi diot Sigman kentzeko sistema hori".



**Mila esker koko-dantzak antolatzen lagundu zigutenei:** "Haritz Euskal Dantzari Taldea esker-erak eman nahi dizkizuegu Koko dantzak antolatzen lagundu diguzuen guztioi Eibarko Kezka Dantza Taldea, Mauxitxa Txaranga, King Kong, Txariduna, Gabi eta Jai Alai, eta parte hartu duzuen elgoibartar guztiei".



## Etxe kaleratzeak etetea exijitzeko herri ekimena sortu dute Debabarrenean

Zapatuan Donostian egingo den manifestaziora joateko deia egin dute

**K**aleratzeak Stop Desahucios Debabarrena taldea sortu dute. Kaltetuekin harremanetan jarri, haiei elkartasuna adierazi, eta egoeraren larria salatzeke sortu dute taldea, eta dagoeneko hasi dira herriz herri Udaletan mozioak aurkeztzen. Eibarren, esaterako, aho batez onartu zuen Osoko Bilkuraren Udalbatzarrak Kaleratzeak Stop Desahucios Debabarrenean aurkeztutako mozioa. "Udalaren esparrutik jarduteko zailtasunak eta mugak hor badaude ere, bidegabea eta jasanezina den egoera baten aurrean ezinbestekoa da adierazpen hau egitea" adierazi zuen Eibarko udalbatzarrak.

Etxe kaleratzeen kontra mobilizatza ere deitu dute. Zapatuan, Bilbon, Gasteizen eta Donostian deituta dauden manifestazioekin bat egin dute, esaterako. Eibarren elkartuko dira, gero handik autoetan Donostiara joateko. 12:00etan hasiko da Donostiako manifestazioa, eta 10:00etan batuko dira Eibarren, hara joateko. Bestalde, hitzaldi informatiboak eskaintzen hastekoak dira orain. Eskualdean, Elgoibarren emango dute lehenengoa, baina oraindik ez dute eguna zehaztu. Taldean ez dute elgoibartarrak oraindik, eta elgoibartarrak animatu nahi dituzte. Harremanetarako telefono zenbaki bat ere eman dute: 627 934 675.

### Agenda 21eko ziurtagiria berri du Elgoibar Ikastolak

Eskola Agenda 21eko ziurtagiriaren berriztea irudikatzen duen bandera jaso berri du Elgoibar Ikastolak. Agenda 21eko programak hezkuntza komunitatearen partaidetza sustatzea dauka helburu, eta ikasleen protagonismoa bultzatzen du, beste ezeren gainetik. 2008ko azaroaren 3an jaso zuen lehenengoz ziurtagiri hori Elgoibar Ikastolak, hain zuzen ere ziurtagiriok banatzen hasi ziren urtean, eta aurrean, berri dio Eskola Agenda 21eko Batzordeak, ikastetxean bertan egindako ebaluaketa baten ostean. Joan zen ostegunean jaso zuten bandera ikastolakoek.



### Finlandian izan dira Mekakoak, hango hezkuntza sistema ikusten



Elgoibarko Meka institutuko hogeit hamar ordezkarik Finlandian izan dira, hango hezkuntza eredu bertatik bertara ezagutzeko asmoz. Aste batean egin dute han, Lanbide Heziketak nola funtzionatzen duen ikusten, eta han egindako egonalditik ondorioztatu dute Finlandiako Hezkuntza sistemak horren ondo funtzionatzen badu erabiltzen duten metodologiagatik, gizartearen parte hartzeagatik eta hango irakasle gaituengatik dela. Elgoibartik joandako ordezkarien artean izan da Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea ere.

## Izena **Mbaye Ndiaye**



Mbaye Ndiaye saltzaile ibiltari senegal-darraren gorpua aberriratzeko diru bilketa kanpaina hasi du Ndank Ndank-ek, Bergarako Senegalen Lagunen Elkartek (<http://www.facebook.com/ndankndank.e> Ikartebergara). 32 urte zituen Ndiayek, eta ostegunean hil zen Donostiako ospitalean. Soraluzeko taberna batean saltzaile

lanetan ari zela eman zion ondoezak eta anbulantzian eramán zuten Donostiako ospitalera.

Ndiaye Senegalgo Louga eskualdekoa zen jaiotzez eta duela bost urte iritsi zen Euskal Herrira, emaztea eta hiru seme-alabak han lagata. Eibarren zegoen erroldatuta, eta aurki zen bere herrialdera joatekoa, emaztea eta seme-alabak ikustera.

Debabarrena eta Debagoiena osoan oso ezaguna zen Ndiaye. Elgoibarrera, esate baterako, astean birritan etortzen zen gutxienez, lanera. Haren gorpua Senegalera eramateko, 6.000 euro behar dituzte, eta, diru hori biltzeko kontu korrante bat zabaldu dute Euskadiko Kutxan: 3035 0004 90 0040022549. Elgoibarren, Iriondo kirolak dendan ere egin daitezke diru ekarpenak, nahi izanez gero. Bihar, goizean, bestalde, King-Kongen jarriko dute diru-bidirua biltzeko mahaia.

## Izena **Eneko Iturbe**



Eneko Iturbe elgoibartarrak irabazi du Euskadiko Diseinatzaile Gazte Onenaren Lehiaketa. Zortzi diseinatzaile iritsi ziren finalera, eta epaimahaiak Eneko Iturberen *Un desorden perfecto* izeneko bilduma nabarmendu zuen denen artean. Frank Ghery arkitektoak diseinatutako Wiggle izeneko aulkian oinarritutako lana da berez. Iturberen bilduma irabazlea Getxoko Artea merkataritza gunean dago ikusgai atzoz geroztik, eta hilaren 24an, Madrilerá eramango dute, Espainiako Diseinatzaile Gazteen lehiaketan parte hartuko baitu han Iturbek, otsailaren 28an.

## **Sorosle eta sorospen ikastaroa antolatu du DYAK**

Martxoaren 2an hasiko da DYAK antolatu ohi duen sorosle eta sorospen ikastaroa. Eibarren emango dituzte eskolak, DYAreñ bulegoan (Paggi kalea, 5). Ikastaroa zapatuetan izango da, goiz eta arratsalde. Goizez, 9:00etatik 13:30era, eta arratsalde, 15:30etik 19:30era. Izena emateko ez da beharrezkoa aurrez sorospen-egaztuzarrik izatea, eta antolatzaileek aurreratu dute egunero-kotasunean izaten diren arrisku egoerei aurre egiten irakatsiko dutela. Ikastaro amaieran froga bat egingo diete ikasleei, eta gainditzen dutenek DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle tituloa eskuratzeko aukera izango dute. Matrikulak 100 euro balio ditu, eta ikasle kopurua mugatua izango da. Harremanetarako: 943 464 622.

## **Otegi askatzea exijitzeko iaz Logroñon egin zuten ekitaldia ikertuko dute**

Arnaldo Otegi libre laga dezatela exijitzeko iaz Logroñoko kartzela aurrean egin zuten ekitaldia ikertzeko agindu du Espainiako Auzitegi Nazionalak, "terrorismoa goratu" zela arrazoituta Dignidad y Justicia jarritako helegitea aintzat hartuta. Dozenaka elgoibartarek parte hartu zuten ekitaldi hartan.

## **Emakume izatea indartzeko ikastaroa, eguaztenetan**

Haizea emakume taldeak *Eneagrama: conectar con tu niña interior* izenburuko ikastaroa antolatu du. Psikologian, izen bereko irudi geometrikoan oinarritzen den eskema bat da eneagrama, nortasun-tipologia bat irudikatu eta aztertzen duena. George Gurdjieffek garatu zuen berez, eta gerora, psikologiako zenbait arlotan erabili da teoria hori. Eguaztenetan izaten da ikastaroa, Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gela. 17:00etan hasi eta pare bat ordu irauten ditu ikastaroak. Momentuz, 26 lagun daude izena emanda.

# MOKADU TXIKIAK AHO OSASUNERAKO



**Odontologiako laugarren mailan zegoela joan zen Nerea Iñiguez Nikaragua Dentistas sin fronteras erakundearekin. Han ikusitakoarekin hunkituta itzuli zen, eta ikaskide batzuekin batera, euren gobernuz kanpoko erakundea sortzea erabaki zuten, garatzeko bidean dauden herrialdeetako bizilagunen aho arazoak arintzeko. Odontólogos del mundo izena jarri zioten erakundeari. Nikaraguan eta Ugandan egon izan dira, eta martxoan Senegalera joango dira. Bidaiak dituen gastuak finantzatzen laguntzeko pintxo-poteo solidarioa antolatu dute otsailaren 22rako.**

**Ainhoa Andonegi**

**2**003an egin zuen Nerea Iñiguezek estreinako bidaia solidarioa, Madrilgo Dentistas sin fronteras erakundearekin, Nikaragua. Odontologiako laugarren mailan zegoen orduan, eta unibertsitatean eman zieten bidaia solidarioen berri. Hilabete egin zuten han, eta esperientzia hori bizi ostean, argi ikusi zuten ez zela hura izango azken bidaia.

Ilusioa eta lanerako gogoia soberan zituen, eta besteei laguntzeko sentitzen zuen nahia ere handia zen. Sentimendu berberak konpartitzen zituzten ikaskide batzuekin elkartu eta beraien erakunde propioa sortzea erabaki zuten, garatzeko bidean diren herrialdeetako bizilagunei hortz osasuntsuagoak izaten laguntzeko. Odontólogos del mundo izenez erregistratu zuten erakundea, eta berehala hasi ziren lanean. Dirulaguntza batzuk eskuratu zituzten gastu gutxi batzuk finantzatzeko, eta hurrengo bidaia solidarioa antolatu zuten. 2006an berriz joan ziren Nikaragua, eta 2009an Ugandara egin zuten bi-

daia. Joan den Gabonetan bigarren aldiz egon ziren Ugandan, eta bidaia horretara, lagun bikainak eraman zituzten, gainera: Hiru dentista joan ziren, bakoitza bere bikotekidearekin. Sei lagun eta hamabi esku, eta ezer ez zegoen soberan. Goizean goizetik egoten ziren hango bizilagunak dentistara joateko zain. "60 edo 80 lagun hartzen genituen egunero. Hantxe egoten ziren denak egun osoan zain, eta azkena hartu arte ez zen gure lana amaitzen", esan du Nereak. Guztira 400 lagun inguru tratatu zituzten, eta bi mila tratamendutik gora egin zituzten. "Eguzkia irteten

zenetik sartu arte egiten genuen lan".

*Obulumi, obulumi* esaten zutenean Nereak bazekien min egiten ziela. Hizkuntza desberdinak mintzatu arren, ondo konpontzen ziren gaixoeekin eta elkarulertzea lortzen zuten. Bost hitz ikasi zituzten, eta nahikoa zuten horrekin beraien lana egiteko.

Ahoa garbitu, enpasteak egin eta hortzak atera egiten dituzte, batez ere. Mikel Arriola, Nerearen senarra, ingeniaria da, baina dentista lanbidearen oinarrizko ezagutzak hartu ditu dagoeneko, eta aho garbiketaren bat edo beste egiten ere laguntzen dio Nereari. Baina Mikelen zeregin garrantzitsuena dentistak erabiltzen dituen tresnak garbitzea izaten da horrelako bidaietan. Herrialde horietan higiegi falta handia dago, eta leku batzuetan iturriko urik ere ez dago. Hala ere, Nereak argi dauka tresneria garbia ezinbestekoa dela dentista baten lanean, eta are gehiago horrelako herrialdeetan. Lau ontzi jartzen zituzten desinfektazio produktuekin, eta gero tresna guztiak esterilizazio aparatu

**Pintxo  
solidarioa antolatu  
dute herriko  
ostalariekin hilaren  
22ako**



batean sartzen zituzten. “Garbitasuna hemen bezala zaintzen dugu”.

## Martxoan, Senegalera

lazko udan Senegalen egon ziren oporetan Mikel eta Nerea. Trekking ibilbide batean gida solidario bat ezagutu zuten, eta haren bitartez joango dira martxoan dentista solidario lana egitera. Harrituta geratu ziren gida honek mendiko herrixketan egiten zuen lan guztiarekin. “Turistek ordaintzen genien diru guztia herrixka txikietan banatzen zuen”. Harekin hizketan hasi ziren bakoitzaren ogibideari buruz, eta Nereak dentista zela esan zionean berehala antolatu zuten hurrengo bidaiari solidarioa. Nerearen anaia ere odontologia ikasten ari da, eta bera ere joango da oraingo honetan, praktikak egitera. Horiez gain, Madrilgo biologo bikote bat ere joango da beraiekin.

Hamar bat egun egingo dituzte han, eta ahalik eta ahoko arazo gehien arintzen saiatuko dira. Hango bizilagunentzako dentistara joatea luxu bat da, eta gehienak ez dira joaten. Ahoko minez egoten diren arren, ezin dute dentistara joan eta horiei laguntzea izango da elgoibartar hauen lana. Nereak berak badaki hamar egun han egonda ez dutela gehiegi laguntzen, eta arazoak berdin jarraituko duela, baina hango bizilagunek izugarri eskertzen dituzte horrelako ekimenak. “Nik ezin dut arazoa konpondu, baina haien aho osasuna apur bat hobetzen lagundu dezaket”. Etxera itzulera tristeza izaten dela azaldu dute, denek esaten dietelako ez joateko. “Berriri noiz joango garen galdetzen digute, eta ez dute ulertzen guretzako ez dela erraza horrelako bidaiak egitea”. Gutxi lagundu izanaren sentsazioarekin itzultzen dira beti etxera.



Mikel Arriola eta Nerea Iñiguez Ugandan.



## Eskerrak eman nahi dizkiete hortzetako eskuilak erosi dituztenei

Jakin badakite askok ez dutela ulertuko zergatik joaten diren atzerrira solidario, hemen ere familia asko gero eta egoera larriagoan bizi direnean. Krisiaren eraginez gero eta familia gehiagok dituzte hilabete amaierara iristeko arazoak, eta familia horien premien zerrendan ez da agertzen dentistarenganako bisita. Nereak berak badaki jende asko da-goela egoera larrian, eta tarteka dentisten ate

irekiak edo antzerako ekimenak antolatzearen alde agertu da. Badaki ez dela erraza, baina noizean behin dentista jardunaldiak antolatu eta benetako arazo ekonomikoak dituztenei ahoko konponketa oinarritzkoenak doan egiteko prest egongo litzateke.

## Pintxo solidarioa

Horrelako bidaietarako material asko behar izaten dute, eta horrek kostu handia dauka. Tresneriaz gain, anestesia, enpasteak egiteko materiala, orratzak, guanteak... behar izaten dituzte, eta hori guztia erosi egin behar da. Bidaiak eragiten dituen gastu gehienak bakoitzak bere poltsikotik ordaintzen ditu, baina oraingoan finantzazio bide batzuk jarri dituzte martxan. Hortzetako eskuilak jarri dituzte salgai hiru eurotan. Mila eskuilatik gora saldu dituzte Elgoibarren, eta eskerrak eman nahi dizkiete eskuilak erosi dituzten guztiei.

Horrez gain, pintxo solidarioa antolatu dute herriko ostalariekin otsailaren 22rako. Pintxoa euro batean jarriko dute salgai eta irabazien %50 emango diote erakundeari. Maala, Iriondo, Txariduna, Gran Siglo, Pilon, Lanbroa, Malape, Ilunpe eta Viento Sur tabernetan egongo da pintxo solidarioa jateko aukera, 19:00etatik aurrera. Eta gauean, argazki erakusketa jarriko dute ikusgai Gabaz tabernan, eta han kontsumitzen den edari bakoitzeko euro bat dentisten erakunde honi emango diete.

## Erretratu zaharra



**1957**

1957ko erretratu zahar hau San Roken aterata dago. Gaurai hartan herritar askok zeukaten ohitura San Rokera joateko, eta han pasatzen zituzten orduak jolasean. Neska gazte hauek ere halaxe egin zuten.

**Zutik:** Marisol Odria. **Eserita:** Izaskun Uriguen, Maria Jesus Mujika eta Arrate Astigarraga.

ESKERTZA

## IÑAKI SAEZ ETXABE



*Desagertu ezazu gaua  
erori zaitezte, izarrak, erori  
egunsentian irabaziko duzu,  
irabaziko dugu, irabazi.*

*2013ko otsailaren 6an hil zen, 56 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





# INAUTERIAK ARGAZKITAN

Bideoak eta argazki gehiago: [www.elgoiBAREN.net](http://www.elgoiBAREN.net)-en









# AINARA LADRON

**Otsailaren 21ean hasiko da Donostian Ainara Ladron elgoibartarraren eta beste lau gazteren kontrako epaiketa. Haika-Segi auzia salatzeke, A8 autobidean kateatu ziren 2007an. Auzi hori salatzeke, elkarretaratze-  
ra deitu dute Elgoibarren, bihar, zapaturako. Kalegoen plazan izango da, 13:30ean.**



## “Egin ahalak egin arren, ez naute aldatu”

**2007ko ekintza bategatik epaituko zaituzte, beste lau lagunekin batera. Zer balorazio egiten duzu ordutik honakoaz?**

Atzera begiratuz gero, ikusten dugu zoritxarrez ekintza hartan salatu genuena bete egin dela, eta are, aurreikuspen txarrenak bete egin direla. Azken batean, Segi terrorista deklaratu zutenetik hona, gure kontrako jazarpena indartu egin dutela igarri dugu: ertzainak uneoro ditugu atzetik, ezin dugu txosten bat inora eraman, ezin dugu Segiren izenean ezer antolatu... 150 gazte baino gehiago atxilotu, torturatu eta espetxeratu gaituzte, proiektu politiko baten alde egitegatik, eta horrek izugarizko beldurra sortu du herrian.

**Haika-Segi auzia salatzeke lotu zireten A-8 autobidean. Nola oroitzen duzu sasoi hura?**

Testuinguru baten barruan ulertu behar da ekintza hura. 2000. urtea aurretik, ezker abertzaleak nazio eraikuntzarako bide estrategia markatu zuen, eta horren barruan hainbat proiektu jarri ziren martxan. Gazteen ikuspegitik, Jarrai [Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabarako gazte antolakundeak], eta Gazteriak [Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereako antolakundeak] bat egin eta Haika sortu zenekoa da beharbada esanguratsuen. Hortik etorri zen gero Segi. Nazio eraikuntzarako ideiak indar handia hartu zuen, eta horren jakitun, estatu espainolak eta frantsesak errepresio estrategia indartu zuten; independentzia eta sozialismoaren alde ari ziren talde guztiak ilegalizatzeke politika abiatu zuten. Segi legez kanpo laga zuten, Haikako hainbat gazte atxilotu zituzten, eta oro har gazteria jarri zuten jopuntuan, bazekitelako gazteria jopuntuan jarrita Euskal Herriaren askapenerako politika bera jartzen zutela jopuntuan, gazteak garelako etorkizuna. Hala ere, jendeak borrokan jarraitu zuen, eta autodeterminazioaren eta lurraldetasunaren aldeko olatu bat sortu zen. Orduan, estatu espainolak beste estutu bat eman zuen: legez kanporatzeek ez zieten eurek nahi besteko emaitzarik eman eta terrorista deklaratu gintuen. Guk garbi geneukan, baina, eraso-  
ei aurre egin behar genielako, eta mobilizazio ugari egin ziren. Horren barruan ulertu behar dugu A8ko ekintza hura.

**Otsailaren 21ean hasiko da zuen kontrako epaiketa. 30na hilabete-  
ko kartzela zigorra eskatu du fiskalak zuentzat. Nola zaude?**

Trankil. Kartzelara joan naitekeela pentsatzen jarri ordez nahiago dut urte guzti hauetan ikasi dudana baloratzea. Egin ahalak egin dituzten arren, konturatu naiz ez nautela aldatu eta hori garaipentzat hartzen dut. Ez dizut esango berdin zaidanik, baina ez naiz beldur. Saiatzen naiz nire egunerokoari eta borrokari eusten.

**Egunari begira zerbait pentsatu duzue?**

Desobediencia zibila epaituko dute, desobediencia zibila kriminalizatatu dute, eta guri iruditzen zaigu hori ezin dela egin, desobediencia delako herriak borrokarako daukan tresna. Hori salatzeke, Donostian prentsaurrekoa emango dugu epaiketa egunean, 11:00etan, eta Elgoibartik ere joango da jendea. Eraso guztien gaitetik gazteriak borrokan jarraitu duela zabaldu eta independentzia lortzeko bidean aurrera egiteko bidea borroka dela aldarikatuko dugu.

**Abxilotu zintuzten azkeneko aldiak eta baita libre laga zituztenean ere babes handia jaso zenuen Elgoibarren. Zer daukazu esateko?**

Itzela izan zela. Mobilizazio guztiak, asteroko bitak, gutunak... nire identitatea indartzeko balio izan zidan guzti hark. Babes horrek erakusten du asko garelako hau egin dugunak, asko garelako borrokari eusten diogunak.

**Beste auzi bat ere baduzu zain. Nola dago gai hori?**

30.000 euroko bermea ordainarazita baldintzapean laga gintuzten aske, eta epaiketa zain gaude. Beharbada horrek egiten du orain lasai egotea. 6-12 urte bitarteko kartzela zigorra ezarri diezagukete beste auzi horretan, eta hori jakinda, beste hau bigarren mailakoa da.

**Segiko zuzendaritzako kide izatea leporatu zizueten beste auzi horretan. Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituko zaituzte. Badakizu zein Sala edo epaile egokitu zaizuen?**

Eguna ez dute zehaztu, baina pentsatzen dut luze joko duela. Murrilok epaituko gaitu [Angela Murillo, Auzitegi Nazionalako 69. Sala].

# AITOR BADIOLA

Musikaria

**Arima Beltza taldea desegin ondoren beste hainbat musika proiektutan ibili da Aitor Badiola elgoibartarra, eta gaur egun Bluestock taldeko kideetako bat da. Gaur zortzi kontzertua eskainiko dute Kultur Etxeko sotoan, Sinuosek antolatuta. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrerak 3 euro balio ditu.**



## “Lagunen aurrean jotzea berezia izango da”

**Bluestock izena dauka zure musika proiektu berriak. Zertan datza?** 2009an sortu genuen taldea, disko bat prestatu eta kontzertuak emateko asmoarekin. Bost lagun batu ginen: Iker Urkiri, Beñat Sanchez, Maria Armendariz, Ander Zulaika eta ni. 2011n hasi genituen diskoa grabatzeko lanak eta orain dela urtebete kaleratu genuen *Bi pauso* izeneko diskoa, Gaztelupeko Hotsak disketxearekin.

**Zein ezaugarri ditu ‘Bi pauso’ diskoak?**

Zuzeneko emanaldietan eskaintzen dugun berbera islatu nahi genuen diskoan, eta uste dut lortu dugula. Hamahiru abesti daude diskoan, gure abestiak euskaraz egiten ditugu, eta denetarikoa gaiak lantzen ditugu. Elgoibarren diskoko abesti guztiak joko ditugu, eta horrez gain, Rory Gallagher edota Eric Clapton bezalako musikarien bertsioak ere eskainiko ditugu. Eta sorpresaren bat ere egongo dela aurreratzen dut.

**Taldearen izenari erreparatuta, blues estiloa izango da nagusi zuen abestietan, ezta?**

Bai, blues-rock estiloa egiten dugu. Izena jartzerakoan gure musika estiloa zein den agertzea nahi genuen, eta izen egokia iruditu zitzaigun Bluestock. Arima Beltza taldearen estiloa jarraitzen dugu, baina Bluestock apur bat klasikoagoa dela esango nuke. Musikari klasiko-en bertsio asko egiten ditugu, klasiko horiek sekula ez direlako mo-

daz pasatzen. Blues estiloak ez ditu masa handiak mugitzen, baina Euskal Herrian blues jaialdi oso onak ditugu: Elorrión, Tolosan, Zizurkilén, Getxon... eta Hondarribikoa Europako onenetarikoa da. Urte asko daramatzat musikan eta estilo hau da gehien gustatzen zaidana. Jende masa handia mugitu ez arren, inguru honetan badago blueserako joera.

**Musika talde desberdinak ezagutu dituzu, baina ez zara musikaz bizi.**

Ez, musika guretzako zaletasuna da. Taldekide bakoitzak bere lana daukagu, eta entseguak egiteko eta kontzertuak eskaintzeko biltzen gara. Iaz hogeit bat kontzertu eman genituen, eta Euskal Herrian Zuzenean musika lehiaketan finalista geratu ginen. 65 bat talde aurkeztu ginen lehiaketara, eta gure diskoa hiru onenen artean aukeratu zuten. Pozik gaude. Blues estiloko disko batekin emaitza hori lortzerik ez genuen espero.

**Hilaren 22an Elgoibarren joko duzu, zure herrian. Zer sentitzen duzu?**

Kontzertu oso berezia izango da niretzat, dudarik gabe. Arima Beltza Elgoibarko taldea zen, eta garai hartan asko egoten nintzen Elgoibarrén. Aspaldian gutxi joaten naiz Elgoibarrera, eta dudarik gabe, publikoan aurpegi ezagunak ikustea pozgarria izango da. Lagunen aurrean jotzea berezia izango da.



# Ikuskizun eszenikoetarako bonoa sortu du Kultura Sailak

Bi txartel ordainduta, hirugarrena doan izango da

Zinemarako egin duen bezala, ikuskizun eszenikoetarako bonoa sortu du Kultura Sailak. Bi ikuskizunetarako sarrera erosita, hirugarren saioa doan ikusteko aukera eskaintzen du bonoak. 13 urtetik gorako edonork eskuratu dezake bonoa, Udaleko Kultura Sailean edota posta elektronikoz, [kultura@elgoibar.net](mailto:kultura@elgoibar.net) helbidera idatzita.

Txartela erabiltzaileak bakarrik erabili ahal izango du. Horregatik, txartel-saltzaileak sarrera ematerako orduan nortasun agiria eskatu ahal izango dio, erabiltzailea txartelaren titularrak dela jakin ahal izateko. Bonuaren bi laukitxoak zigilatu ondoren, erabiltzailea hurrengo ikuskizun eszenikoa ikustera doanean, txartela entregatuko du leihatilan, eta txartel-saltzaileak sarrera bat oparitu dio.

Informazio gehiago eskuratzeko, Kultura Sailera jo daiteke: 943 742 158.



## ‘Emaztegiaren semea’ antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur Herriko Antzokian



*Emaztegiaren semea* antzezlanaren antzezlanak du gaur Ados Teatroak Elgoibarren, Herriko Antzokian. Emanaldia euskaraz izango da, eta 20:30ean hasiko da. Sarrerak Servikutxa zerbitzuaren bidez eros daitezke, 943 001 200 telefono zenbakira deituta edota [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

*Emaztegiaren semea* izeneko filmaren oinarritutako trajikomedia da berez antzezlanaren. Aitak oinordetzan emandako jantzia dauka Rafaelek, eta egoera zaila ari da biltzen: dibortziatuta dago, ez du alaba ikusten, lanik aurkitzen ez duen bikotekidea dauka eta inora iritsi ezinda bizi da. Egoera horretan, aitak amarekin elizaz ezkondu nahi duela esango dio. Amak Alzheimerra dauka eta opari hori egin nahi dio senarrak, baina Rafaelek ez du ondo hartuko.

## ‘Vasconia’ liburuari buruzko auto-formakuntza saioa Gaztetxean

*Vasconia* liburuaren gaineko auto-formakuntza saioa antolatuko dute ZukGua gazte prozesukoek asteazkenean. 20:00etan izango da, Gaztetxean. Liburuko hainbat pasarte irakurri eta horren gainean eztabaidatuko dute auto formakuntza saiora biltzen direnek. Besteak beste honako gaiak izango dira: euskara, nazionalismoa, Euskal Herriko historia, Erdi Aroko euskal familia ereduak, ekonomia, ideologia... Lagun arteko eztabaida saioa izango dela aurreratu dute antolatzaileek, afari-merienda baten bueltan egingo den gogoeta saioa.

## Domekan itxiko dute Gemma Monrealen margo erakusketa

Gemma Monreal margolariaren erakusketa ikusteko aukera izango da asteburu honetan. Atzera begirako erakusketa egin du Monrealak, eta bere hasierako lanetatik gaur egunera artekoak jarri ditu ikusgai. Oraindik erakusketa bisitatu ez dutenek domekara arte dute aukera: goizez, 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 18:30etik 20:30era.

## ‘Anaki’ antzerki multimedia aurkeztuko dute domekan

*Anaki* antzerki multimedia aurkeztuko dute domekan, Herriko Antzokian. Marrazki bizidunekin antzekotasun handia duen antzerki berri-zailea da. Anakiren ezusteko Kotaro robotak zerutik haratago hegatu egiteko gaitasuna dauka. Planeta zoragarriekin egingo dute topo, eta hamaika abentura biziko dituzte. Umeentzako antzezlanaren bada ere, familia giroan gozatzeko aukera ematen du. 16:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak egunetan bertan jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko leihatilan. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta nagusiek, 5 euro.

## Izeta II.ak 118 altxaldiko marka jarri du Aritzaren harriekin

Joseba Otaegi eta Unai Otaño sailkatu dira Urrezko Aizkora Txapelketako finalerako

**J**oxe Ramon Iruretagoiena *Izeta II.*-ak (Aia, 1967) 118 altxaldiko marka jarri zuen domekan Pedro Mari Txurruka *Aritza* harri jasotzaile mutrikuarraren harriekin. Bi harri erabili zituen Aiarak. 95,6 kiloko kubiko zaharra eta 135,6 kiloko errektangularra. Ehun urtetik gorako harriak dira biak. Bere garaian 137 kilo eta 100 kilo ziren, baina denboraren joanean, pisua galdu dute. Hala ere, jasotzeko orduan "lehen bezain zailak" dira, adituen arabera.

30 minutuko saioa egin zuen aiarrak, hamabost minutu harri bakoitzarekin. Kubikoarekin 73 jasoaldi egin zituen, eta 45 errektangularrekin; 118 jasoaldi guztira. *Izeta II.ak* 30 urte daramatza harri jasotzen. Urdanetako jaietan egin zuen debuta, eta ordutik makina bat marka ezarri eta ondu ditu.

### Urrezko aizkora

Urrezko aizkorako finalerdiak ere jokatzen

tu zituzten domekan, Mendaron. Joseba Otaegi zizurkildarra eta Unai Otaño ibarra, iazko Urrezko Aizkorako txapelkunak, Aitzol Atutxa II.a dimarraren eta Ugaitz Mugertza mutrikuarraren kontra lehiatu ziren, eta azkenean iazko irabazleak sailkatu ziren finalerako. 23:15eko denboran bukatu zuten lana Otaegik eta Otañok, eta 26:13an Atutxak eta Ugaitzek.

Kanporaketa jokatu aurretik ere, hanka bat finalean zuten Joseba Otaegik eta Unai Otañok. Izan ere, orain hamabost egun Iraetan jokatu zuten joaneko saioan eurek nagusitu ziren, eta 2:15ko aldea aterazi zieten, gainera, Atutxa eta Mugertzari.

Urrezko Aizkorako finala Azpeitian jokatuko dute, martxoaren 3an, eta zapatu honetan zehaztuko da zein bikoterena kontratutako beharko duten Mendaroko irabazleak. Nolanahi ere, finala irabazteko favoritotzat ageri dira Otaño eta Otaegi kirolari askotan.



*Izeta II.a ahalegin betean.*

### Concepto Egile taldearen bigarren itzuliko partidatarako abonua txartela

Concepto Egile areto futboleko taldeak ligako bigarren itzulia hasi du, eta Klubak eskaintza berezia egin die zaleei. 20 euroren truke, bigarren itzulian etxean jokatuko dituzten partidak ikusteko abonua txartela egiteko aukera jarri du Klubak. Herriko hainbat tabernatan egin daiteke txartel hori.

### La Union elkarteak ehiza xehe txapelketa antolatu du zapaturako, Zambranan

Elgoibarko La Union elkarteak ehiza xehe txapelketa antolatu du biharko. Zambranan (Araba) jokatuko dute, El Castillo ehizabarrutian. Txapelketa hori bailarako txapelketarako puntuagarria izango da, eta parte hartzeko ezinbestekoa da La Union elkarteako kirol saileko bazkide izatea eta federatuta egotea.



**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON VILARCHAO**

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak  
Tel. 943 743 570

**DEKORAZIOA**

Karpo eta berrak-estelak  
Zolak estelak  
Lantekak: eguzki-aurerak, PVC  
Pisua gizona

GRUP  
REALTY

# Martxoaren 25ean hasiko da Aste Santuko kirol campusa

1999-2005. urte artean jaiotakoek har dezakete parte

**A**ste Santurako kirol campusa antolatatu du Kirol Patronatuak, martxoaren 25, 26, 27 eta apirilaren 2, 3, 4 eta 5erako. Zazpi egun horietan hainbat kirol ezagutu eta praktikatzeko aukera izango dute partaideek. Besteak beste, futbola, saskibaloia, tenisa, padela eta atletismoa izango dituzte aukeran. Kirol horiek praktikatzeko Olaizaga kiroldegiko, Mintxetako eta Ikastolako kirol instalazioak erabiliko dituzte.

## 1999-2005

Kirol kanpusean 1999 eta 2005. urteen artean jaiotako umeek hartu dezakete parte. Interesatuak Olaizaga kiroldegiko harreraren eman beharko dute izena, martxoaren 15a baino lehen. Kirol Patronatuak bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 55 euro.



Arduradunek jakinarazi dute plaza mugatuak izango direla eta gehienez 55 lagutuak

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 1 – Santutxu 1 (3. maila)

Elgoibar 5 – Urki 1 (Jub.)

Elgoibar 1 – Zarautz 4 (Kad. B)

Elgoibar 1 – Urola 1 (Inf. Txiki)

### ESKU PILOTA

Lagunak 22 – Azkoitia 18 (1. mailako nag.)

Lagunak 22 – Urnieta 21 (1. mailako nag.)

Añorga 15 – Lagunak 22 (2. mailako kad.)

Lagunak 13 – Ziotza 22 (3. mailako Kad.)

### Pala

Pina Kurdin 25 – Lagunak 21 (2. mailako nag.)

Zestoa 25 – Lagunak 22 (2. mailako nag.)

### XAKEA

Gros 3,5 – Mekatar Elgoibar 0,5 (1. maila)

### ARETO FUTBOLA

Kirol Sport 3 – Concepto Egile Elg. 6 (2B maila)

### ESKUBALOIA

Alcorta Elg. 27 – Pulpo 17 (Sen. mut.)

Pneumax Elg. 22 – Bankoa Elg 18 (Kad. inf. mut.)

Pulpo 9 – Tecnifuelle Elg. 26 (Sen. neska.)

Sanlo 23 – Eibar 3 (Aleb. neska.)

Alkideba Elg. 16 – Urola 11 (Aleb. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 16

10:00 Elgoibar – Lagunak Onak (Ohorezko inf.)

16:30 Haundi – Lagunak Onak (3. maila)

18:30 Haundi – Lazkao (Erreg.)

Domeka, 17

11:30 Elgoibar – Lagunak Onak (Aleb.)

12:30 Elgoibar – Lazkao Onak (Kad. A.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 16

16:00 Concepto Elg. – Altoaragon (Sen. mut.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 16

11:15 Murgil Elg. – Urnieta (Inf. neska.)

12:30 Pneumax Elg. – Eibar (Kad. mut.)

18:00 Tecnifuelle Elg. – Bera Bera (Sen. neska.)

19:30 Beristain Elg. – Bera Bera (Jub. neska.)

Domeka, 17

9:45 Deca Elg. – Pulpo (Inf. mut.)

11:00 Bankoa Elg. – Udarregi (Inf. mut.)

12:15 Gabaz Elg. – Tolosa (Sen. mut.)

### ESKU PILOTA

Baixakua, 15

21:15 Lagunak – Allerru (2. mailako kad.)

22:00 Lagunak – Zarautz (2. mailako nag. Pala)

22:30 Lagunak – Ikasberri (2. mailako nag. Pala)

## Xake txapelketa antolatu du Mekatar taldeak



Xake txapelketa antolatu du Elgoibarko Mekatar Xake taldeak. Martxotik ekainera jokatu dituzte partidak Iriondo tabernan, eta edozeinek har dezake parte. Xakea herritarrei gerturatzea nahi dute antolatzaileek, eta horregatik lagunarteko giroan jokatu dira partida horiek, txapelketa ofizialetako presiorik gabe. Izena ematen duten partaide kopuruaren arabera, taldeak osatu dituzte eta ligilla eran jokatu dira partidak. Talde bakoitzeko irabazleak sailkatuko dira hurrengo kanporaketarako. Txapelketan parte hartu nahi dutenek martxoaren 1era arte dute izena emateko aukera. Iriondo tabernan, Mekatar taldearen lokalean, [fidididomik@hotmail.com](mailto:fidididomik@hotmail.com) helbidean edo 630 731 132 telefonoan eman daiteke izena.

**LANA.....**

*Eskaerak*

- Gizonezko gaztea lan bila. Igeltsero, garbitzaile edo zaintzaile lanak egiteko prest.  
☎ 662 576 146
- Emakumea lanerako prest. Arratsalde, 15:00etatik 20:00etara. Orduka ere bai.  
☎ 690 359 554
- Esperientziadun mutila sukalde laguntzaile lanerako prest. ☎ 606 213 945
- Neska gaztea edozein lan egiteko prest.  
☎ 628 647 809
- Emakumea lan bila: esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan.  
☎ 690 064 225
- Mutil gaztea lanerako prest: garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo banatzaile lanerako prest. ☎ 682 518 370
- Pertsona arduratsua lan bila. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. Garbiketak egiteko edo sukalde laguntzaile lanerako prest.  
☎ 606 072 354
- Emakumea lan bila: Garbiketak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna.  
☎ 681 065 683
- Mutil arduratsua baserrian edo nagusiak zaintzen egingo luke lan. Egunez nahiz gauez, etxean edo ospitalean.  
☎ 606 072 354
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ohetik jaiki ezinda daudenak zaintzen esperientzia daukat. Erreferentzia onak.  
☎ 616 328 060 / 943 744 028

- Enpresa ikasketetan lizentziatutako bi lagun lan bila ari dira. Ekonomia, kontabilitate, fiskal eta laboral arloan egingo lukete lan.  
☎ 617 332 301
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, arratsaldez eta gauez. Etxeko lanak egiteko ere prest.  
☎ 636 590 016
- Neska lanerako prest: dendari, garbitzaile, zaintzaile... Arratsalde.  
☎ 671 478 823
- Emakumea lanerako prest.  
☎ 617 800 314
- Neska lanerako prest: dendari, garbitzaile, zaintzaile... edozertarako prest.  
☎ 671 225 189
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka, eta gauez ere bai.  
☎ 680 121 252
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsaldez edota orduka.  
☎ 660 551 781

*Eskaintzak*

- Sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako. Interesatuak eraman curriculumak Gautxo jatetxera. ☎ 943 740 955

**ETXEBIZITZAK.....**

- Senar-emazteek etxea hartuko lukete alokairuan Elgoibarren.  
☎ 608 474 923

- Etxea salgai, Juan Mugertza 1ean. 115m2, 8. solairua, oso eguzkitsua. Egoera onean. 192.000 euro.  
☎ 666 235 499
- Pisua hartuko nuke alokairuan.  
☎ 620 712 478

**GARAJEAK / LOKALAK.....**

- Garaje itxia alokairuan San Roke auzoan, kirol-degi parean.  
☎ 943 742 931 / 660 937 529

**BESTELAKOAK.....**

- Ostalaritzako tresneria salgai negozio aldaketagatik: kafetera, izotz makina, musika aparatua, garbigailua... Banaka ere saltzen dira.  
☎ 665 720 977
- Etxeko jatekoarekin hazitako txerria salgai.  
☎ 680 442 695



ESKERTZA

**JOSE LUIS BALZOLA SUINAGA**

*Zure bizi-legeak merituak ditu,  
 lana gogotik egin, familia zaitu,  
 irribar goxoakin bazterrak alaitu,  
 beti zurekin nola nahi degun jarraitu,  
 Morkaikoko haizeak elkartuko gaitu.*

*2013ko urtarrilaren 22an hil zen, 62 urte zituela.  
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



• Zorionak, **Goiatz!** Oso ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Muxu handi handi bat, familiakoen partez.




• Zorionak, **Erik**, astelehenean 2 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Sara**, gaur urte bat egin duzulako. Familiakoen partez, muxu bat.



• Zorionak, **Xiana**. Bihar 3 urtetxo! Muxu asko aittitta-amamen eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Haizea Urbizu!** Gaur 4 urte! Muxu asko aittitta eta amamaren partez.



• Zorionak, **Nagore**, gaur, hilak 15, 10 urte borobil egin dituzulako.



• Zorionak, **Maddi**, zure hamargarren urtebetetze egunean. Familiako guztien partez, ondo pasa.



• Zorionak, **Iraia**, zure bosgarren urtebetetzean. Familiako guztion partez.



• Zorionak, **Ane**, zure bigarren urtebetetzean. Muxu handi pila bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Ibon**, igandean 6 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki Koldo eta Noraren partez.



• Zorionak, **Nora**, zure bosgarren urtebetetze egunean. Patxo handi bat Ane eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Koldo, Alazne eta Beñat**, familiako guztion partez. Zenbat urtebetetze gure etxean otsailean! Eta oraindik Jon falta da! Muxu handi bat.

#### AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [baren@elgoibarkoizarra.com](mailto:baren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

## 15 barixakua

### *Musika*

18:30 Kale Kantariak  
Entsegua egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Otsailaren 23an irtengo dira kantura, azken zapatuko ferian.

### *Antzerkia*

20:30 'Emaztegiaren semea'  
Ados Teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## 16 zapatua

### *Politika*

11:30 Sorturen eratze batzara  
Ardura eta karguen bozketa egingo dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### *Politika*

13:30 Elkarretaratzea  
Epaiketa politikorik ez. Euskal gazteria libre eta legala lemapean elkarretaratzea egingo dute, Ainara Ladron elgoibartarrari babesa emateko. Kalegoen plazan.

## 17 domeka

### *Erakusketa*

12:00 eta 18:30 'Atzera begira'  
Gemma Monrealen erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

### *Antzerkia*

16:30 'Anaki'  
Umeentzako antzerki multimedia, Herriko Antzokian.

## 20 eguaztena

### *Autoformakuntza*

20:00 'Vasconia'  
ZukGua gazte prozesuaren barruan, Vasconia liburuko hainbat pasarte landuko dituzte. Gaztetxean.

## 21 eguena

### *Ipuin kontalaria*

17:00 Mirian Mendozaren ipuinak  
Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa izango da Udal Liburutegian.

## 22 barixakua

### *Bideo forum*

21:30 Filma eta kafea  
Haizeak antolatuta, bideo forum saioa egingo dute Kultur Etxean, Loredi Salegirekin.

### *Musika*

23:00 Kontzertua  
Bluestock taldeak kontzertua eskainiko du, Sinuosek antolatuta. Kultur Etxeko sotoan.

## ZINEA

### 'Django'

16, zapatua:  
19:00/22:15  
17, domeka: 19:00  
18, astelehena:  
21:30



### 'El artista y la modelo'

Ongarri zinekluba  
21, eguena: 21:30



## OKINDEGIA

17 domeka:  
EIZAGIRRE



## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### Egunez

9:00 - 22:00

15 Fernandez  
16 Yudego  
  
17 Yudego  
18 Zabaleta  
19 Barrenetxea  
20 Ibañez  
21 Garitaonandia  
22 Etxeberria

#### Gauetz

22:00 - 9:00

Garitaonandia  
Yudego  
  
Yudego  
Yudego  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Garitaonandia  
Etxeberria

#### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384



ESKERTZA

## JOSEFA GARATE ARRILLAGA

2013ko otsailaren 8an hil zen, 92 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

## PETRA ZUBIAURRE URKIRI

2012ko otsailaren 12an hil zen, 88 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 16,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.  
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



ESKERTZA

## JULIANA ALONSO PEÑALVER

2013ko otsailaren 4an hil zen, 98 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

## JULIO URBIOLA ELOSEGUI

2013ko otsailaren 10ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

## VALENTIN IBARLUCEA ARANO

*Urtebete, Valen, nerekin etzaudela*  
*Urtebete, aitxa, adarrik jotzen ez diguzula*  
*Urtebete, aitxitxa, zure patxorik jasotzen ez dugula*  
*Urtebete, baina gure gogoan, atzo balitz bezala.*

2012ko otsailaren 14an hil zen 74 urterekin. I. urteurreneko meza zapatuan, otsailaren 16an, izango da  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



# 2013 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

**Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu**



**Bertan agertu nahi baduzu...**

**Deitu 943 744 112 / 943 743 704 zenbakietara  
edo idatzi [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com) helbidera.**